

## Martutene

# Pilarreko Ama jai zoriontsuak!

Hilaren 12ra arte, Pilarreko Ama Birjinaren jaiak izango ditugu Martutenen. Ondo pasatzeko lau proposamen dakarzkizuegu.



### Haur Eguna larunbatean

Larunbatean, hilak 9, Gaztelekuak antolatuta Haur Eguna egongo da. Alde batetik, V. Argazki Lehiaketa izango da. 10 eta 18 urte bitarteko neska-mutilek parte hartu ahalko dute lehiaketan. Argazki makinak Gaztelekuuan bertan egongo dira eskuragarri: gaztexoek jaietan iraun bitartean ateratzen beharko dituzte argazkiak. Bestelako ekintzak ere antolatu ditu Gaztelekuak: pintxo lehiaketa, aerobica, karaokea, kalejira...

### Sagardo Eguna

Asteartean, Pilarreko Ama Birjinaren egunean, Sagardo Eguna txanda izango da. Inguruoko baserrietako eta sagardotegietako produktuak erosi eta sagardoa dastatu ahalko da eguerdi partean. Honako sagardotegiek parte hartuko dute: Barkaitzegi, Gartziategi, Lizeaga, Petritegi, Astarbe, Rezola, Otsua Enea, Bereziartua, Egiluz eta Alorrenea. Baserriko produktuak, Antxume, Olatxo, Agirretxe, Aldaba Zarra eta Okendotegi baserrietakoak izango dira. Sagardo Eguna jaietako hitzordu arrakastatsuena da. Horren adierazle sagardo egi-leek azken urteotan salduenak 1.000 edalontzi inguru. Ohi bezala, sagardoa hobekien zerbitzen duenari saria emango diote.



### Ostiralean antzerkira!

Larratxoko Emakume Ausartak antzerki taldeak "Un busto al cuerpo" antzezlanera eskainiko du hilaren 8an, ostirala 20:00etan, Gaztelekuan. Mari Jose Fragosok, Ana Goikoeztek, Mari Angeles Gonzalezek eta Marian Fernandezek osatutako taldeak estetikaz eta modaz dihardu "Un busto al cuerpo" obra ironikoan.

### Gorritiren animalia azkarrak

Poney-en gainean ibili, oillarrak abesten ikusi, zezen txikiak jolastu, edo basurde pare bat gerututik ikusi nahi dituenak Martutenen du aukera. Izen ere, Gorritik show ezaguna es-kainiko du igandean, 11:30ean, parkean. Showman gipuzkoarrak festaz festa ibili ohi da; bera gabe, jairik ez da goela diote leku askotan. Ateratzen kontuak!



**ARANTZAZUKO AMA  
KASTOLA**

ASTIGARRAGA - ERGOBIA - LOIOLA ETA MARTUTENE

Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza

*Jaietan ere zuekin.  
Ondo pasa!*

**ALAI**  
taberna

Goizeko 6-etatik zabalik



Tranbia kalea 33 (MARTUTENE)

• Tel.: 943 468861 • Ondo pasa festak

**DYC**  
Cerámicas S.L.

Legazpi kalea 10  
Tel. 943 427331

Ubarburu pasealeku 2 (Martutene)  
Tel. 943 461117



## Egitaraua

Ostirala 8

**18.00:** Jainet hastera "Goloka" pallazoekin

**19.30:** Txupinazoa Buruhandiak

kalez kale Patxanga txarangarekin

**20.00:** Martuteneko Gaztelekuak eta Lioiako kultur etxeak antolatuta, Emakume ausartak taldearen "Un busto al cuerpo" antzezlanaz Gaztelekuuan

**20.30:** Dantzaldia Kinu taldearekin

Lanjbata 9. Haur reguna

**10.00:** Burusoi Lehjaketa Txoko-Berri tabernak antolatuta

**10.30:** "Aerobic maratona", Gaztelekuak antolatuta, ikastolako patioan

**12.00:** Pintxo jatea alton-amonentzat, Jubilatuene Etxean

**13.00:** I. Pintxo Lehjaketa 14 eta 22 urte bitarteko gazteentzat, Gaztelekuak antolatuta, ikastolako patioan

**16.00:** Kalejira auzoko gazteentzat

**16.30:** Aretoko elantzen erakustal-

dia Lioiako Zulaitz taldeak eskainia

**17.00:** Break Dance, Dj eta mala-barismo tailerrak ikastolako patioan

**18.30:** Elektrofuna auzoko kaleetan

**19.00:** Karaokea ikastolako patioan

**23.30:** Diskoteka

Igandea 10

**9.30:** Diana

**10.30:** Txokolatea eta blzkoitxoak

**11.30:** Gorritiren animalien era-kustaldia parkean

**13.00:** Herri-kirolak parkean

**18.00:** Euskal dantzak Arkaitz taldearekin

**19.30:** Buruhandiak eta Patxanga txaranga auzoko kaleetan

**21.00:** Sardina jatea eta sagardo dastaketa Patxanga txarangarekin

Astelehenetik 11

**10.30:** Haur jolasak ikastolako patioan

**19.30:** Buruhandiak kalez kale, trikitilariek lagunduta

Elektrotuna



**23.00:** Avenida orkestra

**0.30:** Zezen mekanikoa

Astearteak 12

**9.00:** Diana

**10.00:** Kross herrikolaren XIII. edizioa senior eta beterano malletan-sariak partaide guztientzat

**11.00:** Puzgarriak ikastolako patioan

**12.00:** Martuteneko hildako guz-

tien aldeko meza Pilarreko Ama Birjinaren auzunean. Elkartearen artekoi lehiaketa: bakailaoa pil-pil erara

**12.30:** Sagardoaren eta bertako produktuen azoka inguruko baserri eta sagardotegiei esker

**16.30:** XV. Toka Lehjaketa

**19.30:** Nafarroako jotak "Pamplonicas" taldearekin

**22.00:** Jainet bukaera

## AINHOA

taberna

Pintxoak eta kazuelitak

Sarroeta 90, MARTUTENE • Tel.: 943 464180

## OTARRA

Kontsumo konsciente eta  
orduratsua zabaltzeko



Pilar Amabilgiranen auzunea 32, beheha

Tel.: 943 453026

e-mail: otarra@alttel.net • 20014 MARTUTENE

LIZEAGA



## LIZEAGA

Astigarraga

Eska ezazu Sagardoa I eta etiketan LIZEAGA  
jarriko balu askoz hobe.

EDAN ETA EMAN EDATERA